

**GIPUZKOAKO LURRALDE
HISTORIKOKO FORU SEKTORE
PUBLIKOKO ERAKUNDEAREN ETIKA
BATZORDEAREN JARDUERA MEMORIA**
2022



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Argitaratzailea:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoko Erakundearen Etika Batzordea

Argitalpena: 2023ko maiatza

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gobernantza Departamentua

Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritza nagusia

Plaza Gipuzkoa z/g. 20004 Donostia

T. 943 11 39 60 · modernizazioa@gipuzkoa.eus

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea


Lege Gordailua: D-511-2023

ISBNa: 978-84-7907-857-7

SARRERA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen
Zuzentasun Sistema onartu zuen. Jarraian, Era-
kundearen Etika Batzordea (EEB) sortu zen 3/2016
Foru Dekretuaren bidez, eta Diputatuen Kontseiluak
2016ko maiatzaren 3an hartutako erabakiaren bi-
dez, bertako kideak izendatu ziren, hain zuzen ere
Erakundearen zuzentasun Sistema hori betetzeko
berme organo gisa. 10/2022 Foru Dekretuak, maia-
tzaren 3koa, Batzorde honen antolaketa, prozedura
eta funtzionamendua ezartzen ditu.

Memoria honek 2022ko jarduera jaso nahi du,
Batzordearen jardueraren gardentasunaren eta kon-
tu-ematearen inguruan 10/2022 Foru Dekretuaren
10. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, az-
tertutako kasuak zehazteaz gain, hainbat gomendio
ere jasotzen ditu Erakundearen Zuzentasun Sis-
temaren barne dauden Jokabide Kode ezberdinen
edukia interpretatzeko, hain zuzen ere edukia argitu
eta egungo egoerara egokitzeko.



AURKIBIDEA

1- Testuingurua	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema	9
a) 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituenak	10
b) Aldaketak Erakundearen Etika Batzordearen osaeran	11
c) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes-taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea	11
d) Datuak eta adimen artifiziala erabiltzeko Kode Etikoaren proiektua	12
e) Dibilgazio-materiala	13
f) 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa foru gobernantza publikoaren esparruan, ebaluatzeko proiektua	17
g) Iruzurraren aurkako Neurrien Plana aplikatzeko jarraibideak	17
3- Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa	19
a) Sentsibilizazio- eta zabalkunde-jardunaldiak	20
a. Gizarte lanaren etika publikoa. Gunea aretoa, martxoak 22	20
b. Datuen etika eta adimen artifiziala. Gunea aretoa, urriak 28	21
b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea	22
a. Gobernu ona administrazio publikoetan. Palentzia, apirilak 28	22
b. Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Nazioarteko VII. Biltzarra. Cartagena, irailak 30	23
c. Lidergo Etikoari buruzko IV. Kongresua. Gasteiz, urriak 5	23
d. Berrikuntza publikoaren IX. kongresua - Novagob. Cádiz, urriak 21	24

c) Online prestakuntza: “Gobernantza ireki eta kolaboratiboa”	24
4- Jasotako gaiak	25
a) Laburpena	26
b) Aztertutako gaiak	28
5- Aplikatzeko gida	39

1. Testuingurua

2022. urtea jarduera handiko urte bat izan da, batez ere Erakundearen Zuzentasun Sistema (EzS) garatzeko eremuan. Alde batetik, Erakundearen Zuzentasun Sistema hobetzeko eta osatzeko hainbat proiektu burutu dira, aurreko urtean abian jarritakoak. Proiektu horiei esker, finkatu ez ezik, edukia hobetu eta aplikazio-eremua zabaldu ere egin da: 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektorre Publikoaren Etika Instituzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituena; eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes-taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea.

Bestetik, beste proiektu batzuk jarri dira abian, 2023an argitaratuko direnak eta proiektua garatzen ere lagunduko dutenak. Horien artean, nabarmentzekoak dira datuei eta adimen artifizialari buruzko jokabide-kode berria eta Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren bitarteko ebaluazioaren diagnostikoa, EZSn sartu beharreko berrikuntzak ekarriko dituena.

Era berean, ezin dugu alde batera utzi Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoek eta Europako funtsen babesak etika publikoari eman dioten nahitaezko bultzada; izan ere, bultzatzen dituzten neurrien multzoak eragina du bai EZSn egin beharreko aldaketetan, bai eratorritako lege-eskakizunak bete ahal izateko hartu beharko ditugun neurri berrietan. Besteak beste, neurri zehatzak hartzea iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko, edo salatzaileak babesteko.

Nolanahi ere, horiek guztiek laguntzen dute Sistema hobetzen eta erakunde publikoetan zuzentasunaren kultura gehiago finkatzen; eta foru-sektore publikoa aitzindaria izan zen jada, Zuzentasun Sistema goiztiarra izan baitzen, baina politika publikoen hobekuntzek beti dute lekua foru-administrazioaren kudeaketan eta jardueran; izan ere, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren hitzaurrean adierazten zen bezala,

“(...) Foru Administrazioan Erakundearen Zuzentasun Politika bat diseinatu eta bultzatzeko orduan, legea betetzera mugatu ordez, horren bidez aurrerapausoak eman beharko lirateke erakundearen zuzentasun esparruan eraikitzeke eta hori eraginkor bihurtzeko; baita kudeaketa publikoan jarduera egokiak aplikatu eta garatzeko ere, era horretan, Administrazioaren errendimendua hobetzeko, eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak ere hobetzeko (...)”.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema

a) 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituen.

Erakundearen Etika Batzordea (EEB) 3/2016 Foru Dekretuaren¹ bidez sortu zen, eta onartutako jokabide-kodeetan araututako balioak, printzipioak eta arauak betetzen direla bultzatzeko, sustatzeko, zaintzeko eta bermatzeko eginkizunak esleitu zitzaizkion. Baina 10/2022 Foru Dekretuak² garatu, deskribatu eta arautu du haren funtzionamendua (2022 maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituen.) Hala, 2019ko memorian jasotako EEBren gomendioa ez ezik, Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren³ 11.3 artikuluan ezarritako agindua ere betetzen da.

Bertan adierazten da EEBk bi funtzio nagusi dituela. Alde batetik, EZSn ezarritakotik aldentuta egon daitezkeen jokabideak prebenitzeko lana esleitzen zaio. Horretarako, prestakuntza-programak proposatuko ditu eta gida aplikatiboak egingo ditu, non jokabide-arauak zehaztuko diren eta EZSn aldaketak proposatuko diren, unean uneko errealitatera egokitu ahal izateko. Hori guztia urtero argitaratzen den Jarduera Memoriaran islatzen da.

Bestetik, balio, printzipio, jokabide-arau eta jokabideei buruzko zalantzak, dilemak, keaxak edo salaketak izapidetu eta ebaztea, bai eta horien egokitasuna edo balizko ez-betetzea ere. Eginkizun hori betetzen du, hain zuzen ere, gaiak aztertuta eta horiek ebazita. Prozedura hori EEBren ebazpen arrazoitu batekin amaituko da. Ebazpen hori artxibatu ahal izango da EZSren ez-betetzerik antzematen ez bada, edo, bestela, ez-betetze posibleen egoerak prebenitzeko egokitzat jotzen diren gomendioak eta proposamenak ezarri ahal izango dira. Ez-betetze hori jada kargu publikodunek eta foru-sektore publikoko langileek egin badute, ebazpena kasu arinetan gaitzespenetik hasi eta kargu publikoa uztea proposatzeraino edo organo eskudunari helarazteraino izan daiteke, zehapen bat has dezan. Arlo espezializatuko kodeak betetzen ez badira, larritasun handieneko kasuetan honako hauek egin ahal izango dira:

- Kontratu baten enpresa esleipenduna kontratuaren prezioaren % 10era arteko zehapena jartzea, edo kontratatzeko debekua adieraztea.
- Jasotako laguntza edo diru-laguntza atzera botatzeko proposatzea.
- Interes Taldeen Erregistroko inskripzioa ezeztatzea (eta, beraz, karguekin eta erantzukizuna duten pertsonekin biltzeko aukera galtzea).

Nabarmentzekoa da jasotako salaketen konfidentziasuna bermatzen dela, ezinbestekoa baita gardentasuna bermatzeko eta jokabide desbideratuen eta ez oso etikoen aurka borrokatzeko. Normala denez, pertsonak salaketa publikoaren aurrean uzkur ager daitezke eta, horregatik, ezinbestekoak dira salatzailak babesteko mekanismoak, hala 4/2019 Foru Arauaren 11.2 artikuluan nola 10/2022 Foru Dekretuaren 8. artikuluan eskatzen direnak, beste behin ere EEB honek 2019an egindako gomendioari jarraituz. EEBk eskuratu dituen

1 2016ko martxoaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 47. zk. Dekretu hori urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen (2018ko urtarrilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 17. zk.).

2 2020ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 95. zk.

3 2016ko martxoaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 53. zk.

babes-tresnen artean dago WhistleB aplikazioa, 2020ko eta 2021eko memorieta aipatua, zeinak, segurtasun-estandar altuenei jarraituz (ISO 27001 ziurtagiria), salatzailearen anonimotasuna eta datu konfidentzialak babesten baititu.

Ildo horretan, Foru Dekretuak EEB honek azken urteetan egin dituen gomendioetako batzuk ere jasotzen ditu, salaketak edo akusazioak jasotzen dituen pertsona ere babesteari dagokionez, eta egokitzat jotzen duena argudiatzeko eskubidea bermatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen du.

Foru Dekretu honek sartutako beste berrikuntzetako bat Idazkaritzan izandako aldaketa da; izan ere, erabakitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak idazkari izateari uztea, idazkaria zuzentasunaren arloan eskumena duen zerbitziburua izateko, zeinak hitza izango baitu, baina botorik ez baitu izango.

Azken batean, foru-dekretu honek eguneratu egiten du EEBren funtzionamendua, eta EEBk berak egindako hobekuntza-proposamenak sartzen ditu, azken urteotan pilotutako esperientziaren ondorioz. Proposamen horiek, hain zuzen ere, landutako gaiak izapidetzeko eta Zuzentasun Sistema pixkanaka foru Administrazioan ezartzeko bermeak zehazteko eta hobetzeko balio dute.

b) Aldaketak Erakundearen Etika Batzordearen osaceran

Aipatutako maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak 5. artikuluan adierazten duenez Erakundearen Etika Batzordearen muina 5 pertsonak osatuko dute, eta horietatik 3 foru Aldunditik kanpoko pertsonak izango dira. Sortu zenetik gaur arte, Juana Goizueta, Belén Altuna eta Gurutz Jauregi izan dira lan hori egin dutenak. Hala ere, Gurutz Jauregik, arrazoi pertsonalengatik, Batzorde honetako kide izateari uzteko eskatu du, eta, beraz, eskatutako osuera bermatzeko, 2023an beste kide bat izendatuko da.

Erakundearen Etika Batzordeak eskerrak eman dizkio Gurutz Jauregiri urte hauetan guztietan egindako lan handiagatik.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes-taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea

Gobernu Onaren 4/2019 Foru Arauak foru Administrazioaren Gobernu Onaren oinarri diren funtsezko 3 zutabe adierazten zituen: erakundearen zuzentasuna; administrazio ona eta gardentasuna; eta informazioa eta datu publikoak eskuratzeko eskubidea.

Bere lehen zutabea erakundearen zuzentasuna izateak erakundeak ematen dion garrantzia erakusten du. Atal horretan, erakundearen balioak definitzeaz gain, jokabide-kodeak aipatzen dira balioak, printzipioak eta jokabide-arauak identifikatzeko tresna gisa, eta berme-organoa aipatzen da (hau da, EEB hau), horiek betetzen direla zaintzeaz arduratuko dena. Atal honetako alderdi garrantzitsuenetako bat Interes Taldeen Erregistroa sortzea da, norberaren kontura lan egiten duten eta, zuzenean edo zeharka, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren politika publikoak egiten eta aplikatzen parte hartzen duten pertsonak eta erakundeak inskribatzeko eta kontrolatzeko. Manu hori gau-

zatzeko, 13/2022 Foru Dekretua onartu zen, irailaren 13koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Interes Taldeen Erregistroa sortu eta arautzen duena⁴.

Kode berri honen izateko arrazoa da gizartea gero eta zorrotzagoa eta aktiboagoa dela, neurri batean erakunde publikoak abian jartzen ari diren gobernatzeko modu berrien ondorioz. Gobernantza irekia eta lankidetzakoa da, eta herritarren parte-hartzea eta politika publikoen baterako sorkuntza sustatzen ditu. Horregatik, etengabeko elkarriketa bat du pertsona, talde, erakunde eta elkarte adierazgarriekin eta gizartearekin. Interakzio horrek erabakiak hartzeko kalitatea hobetzeko ahalmena du; izan ere, pertsona horien espezializazioak eta ezagutzek gero eta gai teknikoagoetan adituak diren ezagutzak eman diezazkiekete erabakiak hartzeko ardura duten pertsoneri, eta, beraz, oso erabilgarriak dira politika publikoak garatzeko.

Baina ekarpen hori modu etiko eta gardenean egin behar da, bi alderdiek jarraibide etiko batzuk eta gardentasun-eskakizun batzuk onartu eta errespetatu behar dituzte, pertsona eta interes-taldeek agintariekin dituzten kontaktu guztien buru izango direnak, beren jardunaren zuzentasuna egiaztatzen dutenak eta esku-hartzea legitimatzen dutenak. Horretarako, beharrezkoa da kontrol- eta publizitate-mekanismoen sorrera bultzatzea, agintaritzek politika publikoak egiten eta aplikatzen parte hartzen duten erakunde eta pertsonekin dituzten harremanen gardentasuna bermatzeko; eta horren ondorio da Interes Taldeen Erregistroa sortzea.

Ezin bestela izan, interes-taldeek errespetatu behar dituzten jokabide etikoko balioak, printzipioak eta arauak, berezko jokabide-kode batean jasota daudenak, bat datoz EZSk ezarritakoekin, eta, beraz, balio handiko elementua EZS haren barruan, sektore pribatuan zuzentasun-estandar handiagoak izatera behartzeko balio baitu, sistemaren espirituarekin erabat lerrotatuta. Eta, jakina, EEBren babespean geratzen da, bai hura bultzatzea, bai harekin lotutako gaiak eta salaketak ezagutu eta ebaztea.

d) Datuak eta adimen artifiziala erabiltzeko Kode Etikoaren proiektua

Datuetan eta adimen artifizialean oinarritutako politika publikoek hain espekulatuzaileak ez diren erabaki-ereduak lortzen laguntzen dute, eta, datu irekien estrategiekin batera, administrazioen gardentasuna eta kontuak ematea babesten dute, herritarren parte-hartzea eta politika publikoekiko konpromisoa bultzatuz.

Administrazio Publikoak erronka berriak planteatzen ditu bere esku dituen datuak eta informazioa kudeatzeko moduari dagokionez, kalitatea eta herritarrentzako zerbitzua hobetzeko, informazio publikoa berrerabiltzea, burokratizazioa eta prozedurak eta izapideak sinplifikatzea barne, zeinak zuzenean lotuta baitaude datuen gobernantza egokiarekin adimen artifizialeko tekniken bidez. Hala ere, gizartean ezjakintasun handia dago balio-kateari eta aukerei, onura potentzialei eta, halaber, adimen artifizialaren bidez datu masiboak erabiltzearen arriskuei buruz. Ezjakintasun horren ondorioz, datu-zientziari eta algoritmoei buruzko pertzepzio desitxuratu bat sortzen da, eta gehiegizko beldurra sortzen da horien kudeaketa publikoari dagokionez.

⁴ [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 182, 2022ko irailaren 26koa](#)

Horregatik, garrantzitsua da gogoeta egitea etikak datuak eta adimen artifiziala erabiltzean duen garrantziaz, eta horri buruzko kode bat hartzea. Horrek printzipio etikoaren eta jardunbide egokien esparru bat ezarri beharko du, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren sektore publikoko erakundeek bete beharko baitute adimen artifizialeko algoritmoen bidez datu masiboak erabiltzearekin lotutako politiken garapenean, eta, gainera, eginkizun mugatzailea izan beharko du teknologia horiek eragin ditzaketan arriskuen eta abusuen aurrean, hala nola online delituak edo ziber-gerra.

2022an zehar, gai horri buruzko kode bat egiteko lan egin da, Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzeko. Gainerakoan estiloari jarraituz, zenbait printzipio eta jarduketa-arau ezarriko dira, datuen erabilera etikorako eta adimen artifizialerako parametro gisa jardungo dutenak, eta, aipatu den bezala, foru sektore publikoan nahitaez bete beharrekoa izango da, eta EEB izango da berme-organoa.

Kode hori 2023ko hasieran onartzea aurreikusten da.

e) Dibulgazio-materiala

Aurreko memorietan aipatu den bezala, beharrezko neurriak hartu behar dira Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezagutza sustatzeko, bereziki haren xede diren foru-sektore publikoko langileen artean.

2021ean, kodeen edukia laburbilduta eta modu bisualagoan jasoko zuen hedapen-materiala sortzea erabaki zen, eskuragarriagoa eta atsegina izan zedin. Ildo horretan, EEBren 2022ko otsailaren 23ko bileran oniritzia eman zitzaion prestatzen ari ziren materialen zirriborroari. Material horiek argitaratu eta langileen artean banatu ziren, eta, gainera, jendearen eskura jarri ziren Arreta Bulego Nagusian.



2022an argitaratutako dibulgazio-materiala

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA



BALIOAK ETA PRINTZPIOAK

JOKABIDE KODEAK

BERME ORGANOA



KARGU PUBLIKOAK

ENPLEGU PUBLIKOAK

KONTRATAZIOA

DIRULAGUNTZAK

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

Zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea arduradun eta langile publikoetan eta zerbitzu publikoak ematen parte hartzen duten pertsona zein entitateetan. Erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jokabide desagokiak prebenitzea.

ZEINTZUK DIRA SISTEMAREN BALIOAK?

Ordezkaritza

Kargu publikoa betetzen duten pertsonak erakundearen irudiak eskatzen duen duintasun eta begirunearekin bete behar dituzte ordezkaritza funtzioak.

Zuzentasuna

Funtzio publikoak betetzeko orduan, foru sektoreko kargu publikoak eta langileek beren funtzioei dagokien jokabide etikoa izango dute.

Eredugarritasuna

Portaera eredugarria izatera behartzen du, foru sektore publikoaren zerbitzura dauden kargu publiko eta langileak baitira erakundearen irudiaren isla.

Zintzotasuna eta interes eza

Jarduerak soilik bideratu behar dira interes publikoa eta herritarren interesak erabat betetzera.

Objektibotasuna

Interes orokorren, funtzio publikoak betetzearen eta herritarren zerbitzura dagoen sektore publikoko berezko zereginak eskatzen duten objektibotasunez jardun behar da.

Profesionaltasuna

Funtzioak profesionaltasun handiko irizpideekin bete behar dira.

Eraginkortasuna

Baliabideen kudeaketa eraginkorra izango da, ez da inola ere xahutuko, eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatuko dira.

Bizikidetzeta eta errespetua

Bizikidetzeta, elkartasuna eta tolerantzia oinarri dituen gizartea indartzea eskatzen du, betiere pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta solidaritatea bultzatuz.

ZER ELEMENTUK OSATZEN DUTE ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA?

Kodeak prestatzea, etika arloko prestakuntza, arriskuaren ebaluazioa, interes gatazken inguruko kontsultarako, salaketarako eta kudeaketarako mekanismoak, eta, bereziki, sistema bermatzeko organoa funtsezko elementutzat jotzen dira foru sektoreak bere zuzentasun estrategia garatzeko duen arkitektura etikoari dagokionez.

01

Jokabide kodeak

Sistemak autorregulaziorako dituen oinarriko tresnak dira, zuzenean edo zeharka funtzio publikoak betetzen dituzten pertsonak izan behar dituzten balio, printzipio eta jokabide nahiz jarduketa arauak identifikatzen dituztenak.

02

Berme organoa

Erakundearen Etika Batzordea da Zuzentasun Sistema bermatzen duen organoa, eta batzorde horren ardurua da egiaztatzea behar bezala betetzen direla onartutako kodeei dagozkien balioak, printzipioak, eta jokabide nahiz jarduketa arauak, eta ebatzea jasotako kexa eta salaketak.

03

Hedapen eta prebentzio sistemak

Kargu publikoak eta enplegatu publikoak zuzendutako prestakuntza programak dira. Hezkuntza sistemaren ere bultzada bat ematea aurreikusten da, etikaren eta zerbitzu publikoaren balioetan trebatzeko ekintzen bidez. Prebentziorako neurriak komunikatzeko eta hedatzeko programak ere sartzen dira.

04

Kontuak ematea eta ebaluazioa

Herritarrei sistemaren kudeaketari eta garatutako jarduketari buruzko kontuak emango zaizkie, eta aldiari-aldiari sistema ebaluatuko da, haren betetze maila eta emaitzak neurtzeko.

05

Berrikuspena

Sistema hiru urtean behin berrikusiko da, eta kodeak Erakundearen Etika Batzordearen gomendioen arabera egokituko dira.

ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEA



Autonomia osoa duen organo independentea da. Batzordeak kontuak emateko printzipioari eta gardentasun printzipioari jarraituko die. Helbide elektroniko honetan dago batzordeari buruzko informazio guztia eta haren ebazpenei buruzkoa:
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

ZEIN DA HELBURUA?

Kodeetan araututakoa bete dadin bultzatzea, sustatzea eta zaintzea, eta erakundea kaltetzen duen edozein ez-betetze edo jokabide desegoki prebenitzea.

ZEINTZUK DIRA BERE FUNTZIOAK?

Prebenitzea, prestakuntza programen proposamenen bidez, jokabide desegokiak eta, horrela, erakundearen irudia eta klima etikoa babestea eta bermatzea.

Ebaztea, ebazpen eta txostenen bidez, egindako kontsultak eta azalduetako zalantza eta dilema etikoak.

Izapidetzea eta ebaztea kodeetan jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik aurkezten diren kexa eta salaketak.

Egitea Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena, eta, beharrezkoa bada, kode ezberdinetan ezarritako edukiak aldatzea.

ZEIN DA KONPOSIZIOA?

Batzordea 5 kidek osatzen dute, eta horietatik 2 kargu publikoak dira eta 3 kanpoko adituak.

Enplegu Publikoaren Kodeari eragiten dioten gaiak aztertzeko, langileen ordezkariak izendatutako pertsona batek parte hartu ahal izango du.

Especializazioa eskatzen duten gaietan, gai horietan adituak diren pertsonak parte hartu ahal izango dute.

NOLA BIDERATU KONTSULTAK ETA SALAKETAK ETIKA BATZORDERA?

Nork jo dezake Batzordera?

Edozein herritarrek. Kode desberdinen eremu subjektiboaren barruan dauden pertsonak.

Zertarako jo daiteke Batzordera?

Zuzentasun Sistemarekin lotutako kontsultak edo zalantzak planteatzeko. Ustez egokiak ez diren eta erakundearen balio etikoekin bat ez datozen jokabideei buruzko salaketak edo kexak jartzeko.

Nola tratatzen eta ebazten ditu gaiak Batzordeak?

Aztertzen ari diren gaien konfidentzialtasuna bermatzen du Batzordeak. Salaketak edo kexak anonimok izan daitezke, eta Batzordeak neurriak hartuko ditu salatzailea babesteko. Ebazpena arazoitua eta proportzionala izango da beti. Gaiak gehienez 15 eguneko epean ebartziko dira.

Nola jo Batzordera?



- Esteka: <https://report.whistlebl.com/eu/izfe>
- Posta elektronikoa: zuzentasuna@gipuzkoa.eus
- Foru Aldundiko Erregistroan idatzia aurkeztuta.

INTERES TALDEEN ERREGISTROA



01. 13/2022 Foru dekretuak, 2022ko irailaren 13koak,

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Interes Taldeen Erregistroa sortu eta arautu du.

02. Araua betetzea

Kargu publikodunen eta parekoen **erantzukizuna** da, bai eta funtzionarioen erantzukizuna ere, **aldez aurretik Erregistroan inskribatutako pertsona eta erakundeekin biltzen direla ziurtatzea** (6. artikulua) honela, ezingo dute inskribatu gabeko pertsona edo erakunde batekin bildu.

Bilerak goi-kargudunen **agenda publikoetan** jaso behar dira bilerak egin aurretik; teknikariek egiten diren bileren kasuan, Erregistroaren ardura duen organoari bidali behar zaion **urteko txostenean** jaso behar dira (10. artikulua).

03. Izen ematea

Interes Taldearen Erregistroan inskribatuta egotea **aldez aurreko eta ezinbesteko baldintza** da goian aipatutako pertsonekin bilerak egin ahal izateko. Izen emateko esteka hau izango da: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/interes-taldean-erregistroa>

04. Berme-organoa

Berme-organoa **Erakundearen Etika Batzordea** da, eta bertan aurkeztu ahal izango dira jokabideeta jarduera-arauak ez betetzeari buruzko salaketak:
- Email bidez: zuzentasuna@gipuzkoa.eus/era
- Era anonimoan <https://report.whistleb.com/es/izfe>



05. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes taldeei aplikatu beharreko jokabide-kodea

a. Bizikidetzan, elkartasunean, tolerantzian eta elkarrekiko errespetuan laguntzen duen portaera zuzena izatea.

b. Pertsonak errespetuz tratatzea, mespretxuzko edo edozein motatako diskriminaziozko termino edo jarduketarik egin gabe.

d. Gardentasunez jardutea, arduradunen eta gobernu-organoen publikitatearen eginez, interes-gatazkak detektatzeko eta, hala badagokio, Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Araruaren 2.3 artikuluan ezarritakoa betetzea.

e. Inskribatu izatera zintzo erabiltzea, eta ez erabiltzea Jokabide Kodearen aurkako jarduerak sortzeko.

f. Inskripzioak kontratazioari edo diru-laguntzei dagokienez pribilegiarik ez dakarrenez, hirugarrenik ez nahastea zentzu honetan.

g. Foru-sektore publikoko kargu publikoekin eta langileekin erabakien objektibotasuna baldintzatu dezaketen opariak edo onurak ez sustatzea.

h. Jokabide Kodearen aurkakoak diren edo desonestoak diren bideak erabiliz informazioa lortzea saihestea.

i. Foru-sektore publikoko kargu publikoekin eta langileekin egindako topaketetan ezagutzen den informazio pribilegiatua ez zabaltzea.

j. Erakundearen Zuzentasun Sistemaren balio eta printzipioei kontra egin diezaleketen jokabideak alde batera uztea.

k. Ordezkatutako pertsona eta erakundeek jokabide-kode honen existentziaren eta hartutako konpromisoaren berri ematea.

l. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren gainerako jokabide-kodeak betetzea, hala badagokio.

Ikusi Foru Dekretu osoa <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2022/09/26/c2205855.pdf> web orrian

f) 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa foru gobernantza publikoaren esparruan, ebaluatzeko proiektua

Dokumentu honetan eta aurreko urteetan aipatu den bezala, 4/2019 Foru Araua onartzea (2019ko martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa foru gobernantza publikoaren esparruan) mugari garrantzitsu bat da Erakundearen Zuzentasun Sistemarentzat; izan ere, foru arau batean jasotzen eta aitortzen da erakundearentzat duen garrantzia, haren gobernuaren pilaren gisa adierazita.

Arau horrek 60. artikuluan ezartzen du bost urtean behin ebaluatu behar dela; beraz, 2024an, lehenengo ebaluazioa egin beharko litzateke. Hala ere, 2022an tarteko ebaluazio bat egitea erabaki da. Ebaluazio horretan, ondorengo nahitaezko ebaluaziorako metodologia eta oinarriak ezarri nahi dira, egungo inplementazio- eta eraginkortasun-maila neurtzeaz eta betetze-maila hobetzeko ekintza-plan bat ezartzeaz gain.

Beraz, bitarteko ebaluazio horren emaitza gisa (2023ko hasieran argitaratuko da), eta zuzentasun instituzionalari dagokionez, jakin ahal izango dugu zein diren EZSren indargu-neak, baina baita ahuleziak ere, batez ere ezarpenari dagokionez. Hori dela eta, gomendioak egin eta neurri egokiak hartu ahal izango dira haren edukia barneratzeko eta komunikatzeko ekintzak hobetzeko.

g) Iruzuraren aurkako Neurrien Plana aplikatzeko jarraibideak

2021eko ekitaldiari buruzko memorian aipatu zen bezala, *Europar Batasunak sustatutako Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2021eko abenduaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek Europar Batasunak batera finantzatutako proiektuetako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana* onartu zen.

Plan horrek nahitaez garatu beharreko oinarri batzuk ezartzen ditu. Horretarako, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurri zehatzak hartuko dira, bai eta gobernantza-egituraren esparru orokorrari buruzko zenbait jarraibide ere, Susper-tze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko. 2022an, iruzuraren aurkako planaren inguruan neurri horiek eta beste batzuk zehazteko lanean aritu gara, baina 2023an onartuko dira neurri horiek, eta horren berri emango dugu 2023ko ekitaldiko jarduera-memorian.

Nolanahi ere, ez dago zalantzarik neurri horiek, zati handi batean, Erakundearen Zuzentasun Sistemari eta Erakundearen Etika Batzordearen irudian oinarrituko direla. Batzorde hori, oraindik zehaztu gabe dagoen arren, ziur dago nolabaiteko protagonismoa izango duela bertan adierazten denaren jarraipenari eta gauzatzeari dagokionez.

3. Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa

a) Sentsibilizazio- eta zabalkunde-jardunaldiak

a. Gizarte lanaren etika publikoa. Gunea aretoa, martxoak 22.

Zerbitzu publikoen kudeaketan zuzentasun publikoak duen garrantziaz kontzientziatzeko jarduera gisa, martxoaren 22an gizarte lanaren etika publikoari buruzko jardunaldi bat egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Gunea aretoan. Horretarako, honako hauek hartu zuten parte: (1) Melania Moscoso zientzialariak, Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Goreneko (CSIC) Filosofia Institutuko titularra eta (2) Manuel Villoriak, Rey Juan Carlos Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzietako katedraduna; (3) Juanjo Álvarezek, Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta abokatuak, moderatzaile gisa jardun zuen.

Elkarrizketan gizarte-zerbitzuen kudeaketan aitortzaren eta zaintzaren inguruan eta lotura gizarte-kapital gisaren inguruan hausnartu zen. Abiapuntutzat hartuta zientzia, politika eta etika direla esku-hartzearen funtsezko hiru osagaiak, ondorioztatu zen, pertsona guztientzat duin izango den giza bizitza lortzeko hain agindu etiko garrantzitsua lortzeko asmoa kontuan hartuta bakarrik onartzen dela profesionalak erabiltzaileen bizitza pribatuan sartzea eta laguntzako gailuak abiaraztea. Pertsonen bizitza duina izateko izan ditzaketen gabeziak arintzen laguntzea ertzez betetako erantzukizun bat da, eta errealitate oso konplexua. Erantzukizun saihestezin bat, erakundeen eta langileen gaitasun teknikoak –baita etikoak ere– probatzen dituenak.

Ekitaldian 30 pertsona inguruk parte hartu zuten. Horietako asko Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaketako Departamentuko langileak ziren, eta beren lana egiteko balio eta printzipioak kontuan hartzea zuen garrantzia berretsi zuten, beren lana etikoa, enpatikoa eta bidezkoa izan zedin.



Gizarte lanaren etika publikoa. Gunea aretoa, martxoak 22

b. Datuen etika eta adimen artifiziala. Gunea aretoa, urriak 28

2022ko urriaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gunea aretoan, jardunaldi bat egin zen, “Datuen etika eta adimen artifiziala” izenburupean, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparruan lantzen ari ziren datuen eta adimen artifizialaren erabilera etikorako jokabide-kodearen zirriborroa aurkezteko balio izan zuena.

Horretarako, adituen mahai bat izan zen, eta horiei eman zitzaien zirriborroa lehenago, aztertu ahal izateko eta jardunaldi honetan horri buruzko hausnarketak partekatu ahal izateko. Era berean, horren laburpen bat eta zirriborroan jasotzen ziren 20 jarduketa-arauak eman zitzaizkion publikoari. Horiek baliagarriak izan ziren eztabaida irekitzeko eta gonbidatutako adituen nahiz aurrez aurre zein online parte hartu zuten 40 pertsona ingururen proposamenak jasotzeko.

Jardunaldiari hasiera emateko hausnarketak (1) Daniel Innerarity jaunak egin zituen. Innerarity Gobernantza Demokratikoko Institutuko zuzendaria eta Florentziako Europako Unibertsitate Institutuko Adimen Artifiziala eta Demokrazia Katedraren titularra da, eta datu-zientzia eta adimen artifiziala publikoki pentsatzearen garrantziaz hausnartu zuen.

Datuetarako eta adimen artifizialerako kode etikoaren proposamena (2) Txetxu Ausínek azaldu zuen, CSICeko Filosofia Institutuko zientzialari titularra, Etika Aplikatuko Taldea zuzentzen duena. Adituen mahai honako hauek osatu zuten: (3) Marta Canterok, IADemocracia Katedrako; (4) Ione Artolak, *Data Protection Officer*, Gipuzkoako Foru Aldundia; (5) Edurne Terradillosek, Euskal Herriko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra; eta (6) Ricardo Veak, APTESeko (Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkartea) presidentea.



Datuen Etika eta Adimen Artifiziala. Gunea aretoa, urriak 28

Adituen eta bertaraturako publikoaren arteko elkarrizketan, gogoeta egin zen datuetan eta adimen artifizialean oinarritutako politika publikoek hain espekulatzaileak ez diren erabaki-ereduei laguntzen dieten moduari buruz, arriskuak eta ziurgabetasunak murrizten laguntzen duten moduari buruz, baina, aldi berean, erronka berriak planteatzen dira Administrazio Publikoaren esku dauden datuak eta informazioa kudeatzeko moduari dagokionez, kalitatea eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren jardunbide egokien artean daude informazio publikoa berrerabiltzea, burokratizazioa eta prozedurak eta izapideak sinplifikatzea, zeinak zuzenean lotuta baitaude datuen gobernantza egokiarekin, adimen artifizialeko tekniken bidez; horregatik ari gara horri buruzko jorkabide-kode bat lantzen.

b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea

a. Gobernu ona administrazio publikoetan. Palentzia, apirilak 28

Urtero gertatzen den bezala, gure lurraldetik kanpoko erakunde publikoek foru sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema interesatzen zaie, eta Foru Aldundiari dei egiten zaio sistema osatzen duten elementuen berri emateko, baita sistema hori ezartzen eta aplikatzen ikasitako ikasgaien berri emateko ere.

Oraingoan, Palentziako Diputazioak administrazio publikoetako gobernu onaren inguruan antolatutako ikastaro baten esparruan hartu zuen parte foru Aldundiak. Hitzaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako gobernu onaren politikez gain (besteak beste, zuzentasun instituzionala), EEBk landutako hainbat gai azaldu eta aztertu ziren, azken urteotan jorratutako kasuistika anitzak jendearen artean piztu zuen interesagatik.

Ikastaroa Palentziako Diputazioko eta probintziako udaletako langileei zuzenduta zegoen.

DIPUTACIÓN DE PALENCIA
 Centro Cultural
 Plaza los Juzgados s/n. 34001 Palencia

CURSO PREVENCIÓN FRAUDE Y LA CULTURA DE INTEGRIDAD
 28/29 abril 2022

eclap
 ESCRIBANOS EN EL CÍRCULO DE LA ÉTICA

28 ABRIL '22
 9:00 a 12:30
 Introducción. Ética en las organizaciones públicas. El buen gobierno y los códigos éticos. Los conflictos de intereses
González Manotas Ruada
 Directora General de Servicios e Innovación y Transformación de la Administración
 Diputación Foral de Guipúzcoa

29 ABRIL '22
 9:00 a 12:30
 Programas Compliance en el ordenamiento jurídico español. Evaluación de riesgos penales. Medidas preventivas. Canales de denuncia, sistemas de verificación
Beatriz Bastamante Zorrilla
 Garrigues, Asociada Principal, Departamento de litigación y arbitraje, Área Penal.

12:30 a 14:00
 Control interno como figura de prevención. La prevención del fraude derivado de los programas del PKTR. El ciclo antifraude: prevención, detección, corrección y persecución. Sistemas de banderas rojas.
Sonia Inésca Masa
 Interventora Adjunta, Diputación de Palencia

12:30 a 14:00
 La transposición de la Directiva europea reguladora del denunciante: el canal de denuncias
Miranda Puente López
 Catedrática Derecho Administrativo, Universidad de León.

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Palentziako jardunaldiaren programa

b. Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Nazioarteko VII. Biltzarra. Cartagena, irailak 30.

2022ko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren VII. Kongresua Cartagenan egin zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundia gonbidatu zuten gobernu onari eta herritarren parte-hartzeari buruzko mahaian parte hartzera. Beste behin ere, lurraldean foru-eskumenen esparruan abian jarritako gobernu onaren politikak azaltzeko aukera izan zen, eta zehaztu ahal izan zen zeinen garrantzitsua den erakundearen zuzentasun politika horien oinarri gisa.

c. Lidergo Etikoari buruzko IV. Kongresua. Gasteiz, urriak 5.

2022ko urriaren 5ean, Villa Suso Jauregian, Gasteizen, Lidergo Etikoari buruzko IV. Biltzarra egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Etika Klusterra Fundazioak eta Vital Fundazioak antolatua, konpromiso etikoaren inguruko eztabaidarako.

Oraingoan, Belén Altuna, EEBko kidea, izan zen EEBren jardueraren bidez Erakundearen Zuzentasun Sistema aberasten joan diren elementuak eta ikaskuntzak partekatzeko aukera izan zuena. “Betetze etikoa. Kode etikoak eta etika batzordea” mahai inguruan parte hartu zuen, Cristina Monge eta Mabel Marijuanekin batera, Txetxu Ausínek moderatuta. Eztabaida *Compliance* Legal eta Etikoaren arteko desberdintasunari buruzkoa izan zen, bai eta erakundeetan betetze etikoaren funtzioa eraginkor egiteko moduari buruzkoa ere. Hala-ber, aztertu zen erakunde bakoitzeko etika-kodeek eta etika-batzordeek portaera etikoa gainbegiratzeko eta kontrolatzeko tresna gehigarri bat behar duten, bai kanpoko harremanetan, bai erakundea osatzen duten pertsonen barne-bizikidetzan.

PROGRAMA

10:30 Bienvenida, café

11:00 Presentación

- **Jon Urresti.** Presidente de las Fundaciones Vital

11:15. Introducción

- **José Ignacio Besga Zuazola.** Presidente de la Fundación Clúster de Ética del País Vasco

11:30 Cumplimiento Normativo

- **Juan José Álvarez.** Catedrático de Derecho Internacional Privado. Universidad del País Vasco
- **José Luis de la Cuesta.** Catedrático de Derecho Penal. Universidad del País Vasco

Modera: **Begoña Crespo.** Jurista

12:30. Cumplimiento Ético. Códigos éticos y Comités de ética

- **Belén Altuna.** Profesora de Ética. Universidad del País Vasco
- **Mabel Marijuan.** Profesora bioética. Medicina. Universidad del País Vasco
- **Cristina Monge.** Polítóloga. Socióloga. Universidad de Zaragoza

Modera: **Txetxu Ausín.** Filósofo. CSIC. Gubernance

17:30 Bienvenida, café

18:00 Medición/Control del Cumplimiento Ético

- **José Antonio Abarca.** Fundación Vital Fundazioa
- **Oscar Alberdi.** Secretario General de SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial
- **Fernando Sierra.** Director de Euskalit

Modera: **Juan M^a. Esteban.** Economista

19:00 Conferencia

- **Cristina de la Cruz.** Profesora de Filosofía. Universidad de Deusto
- **Emilio Martínez.** Catedrático de Filosofía Moral. Uversidad de Murcia

20:00. Reflexión final

- **Iñaki Subijana.** Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco

Recital: **La Profesora de Ética. Txaro Martínez.** Actriz

d. Berrikuntza publikoaren IX. kongresua - Novagob. Cádiz, urriak 21

2022ko azken partaidetza Novagob Biltzarraren bederatzigarren edizioaren esparruan izan zen. Topaketa horretan, Estatuko hainbat lurraldetatik eta Latinoamerikako hainbat herrialdetatik etorritako ekosistema publikoko profesional berritzaileenak biltzen dira urtero, eta eztabaidan eta ezagutzaren hedapenean laguntzen dute. Hala, berrikuntza publikoaren erreferente nagusietako bat da Espainian eta Iberoamerika osoan.

Oraingo honetan, biltzarraren ardatz nagusietako bat zen zuzentasuna eta iruzurraren prebentzioa, Next Generation funtsetatik eratorritako eskakizunen ondorioz. Foru Aldundiak parte hartu zuen mahaia Andaluziako Iruzurraren aurkako Bulegoko zuzendariak zuzendu zuen.

INTEGRIDAD Y PREVENCIÓN DEL FRAUDE: ¿CUÁL ES TU PLAN?

SALA 3

- **Fruitos Richarte**, especialista en Cumplimiento Normativo e Integridad, socio fundador de Judilex
- **Consuelo Doncel**, Secretaria General del Ayuntamiento Lora del Río. Forma parte del Grupo de Trabajo de Integridad en la contratación pública. FEMP
- **Goizeder Manotas**, Directora de Servicios de Innovación y Transformación de la Administración de la Diputación de Guipúzcoa

Modera: Ricardo Puyol, Director Oficina Andaluza Antifraude

Novagob Kongresuko mahaiaren osaera

c) Online prestakuntza: “Gobernantza ireki eta kolaboratiboa”

Beste urte batez, Gipuzkoako Foru Aldundiak UNED-Bergararekin batera eta *Globernan-ce* - Gobernantza Demokratikoko Institutuaren laguntzarekin antolatutako gobernantza ireki eta kolaboratiboko online prestakuntzan, ikasleek Erakundearen Zuzentasun Sistema sakon ezagutzeko aukera izan zuten, gogoeta orokorretatik abiatuta, haren edukira eta Erakundearen Etika Batzordera iritsi arte. 2022-2023 aldikoa prestakuntza-programaren laugarren edizioa da. Azaroaren 28tik maiatzaren 16ra bitartean, 26 ikaslek aukera dute administrazioek garatzen dituzten politika publikoei buruz eztabaidatzeko, zerbitzu publikoen kudeaketan eta kalitatean bikaintasuna lortzeko.

Edizio honetan, Foru Aldundiko 2 langilek parte hartzen dute; matrikulatuen erdiak Gipuzkoako hainbat udaletan lan egiten dute, eta gainerakoak Bizkaikoak, Nafarroakoak eta Madrilekoak dira.

4. Jasotako gaiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeak Erakundearen Zuzentasun Sistemaren betetzeari buruzko gai eta salaketak artatzen eta ebazten jarraitu du, bai eta orain arte onartutako kodeak ere: goi-kargudunei, enplegu publikoari, kontratazioari, diru-laguntza eta laguntzei eta interes-taldeei aplikatzekoa. Hona hemen jorratutako gaien bilakaera:

- **2016:** 5 KP eta salaketa 1 (6)
- **2017:** 4 KP + 2 EP (6)
- **2018:** 5 KP + 1 EP + 2 EP salaketak + 1 KZ (9)
- **2019:** 3 KP+ 2 KP salaketak + 4 EP + 2 KZ + 1 DLL + 1 IIS (13)
- **2020:** 1 KP + 1 EP + 2 EP salaketak (4)
- **2021:** 7 EP + 1 KP (8)
- **2022:** 1 KP + 1 EP + 1 KK + 1 EZS (4)

KP: Kargu Publikodunen jokabide kodearen inguruko ebazpenak

EP: Enplegu Publikoaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak

KK: Kontratazioaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak

DL: Dirulaguntza eta laguntzen jokabide kodearen inguruko ebazpenak

EZS: Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko kontsulta orokorren inguruko ebazpenak

IT: Interes-taldeen jokabide-kodearekin lotutako ebazpenak.

a) Laburpena

Gaiak	Kop.	Ebazpena	Kop.
KP kontsultak	1	Ez du urratzen	2
KK kontsultak	1	Urratzen du	1
EZS salaketak	1	Gomendioa	1
EP salaketak	1	Guztira 2022	4
Guztira 2022	4		

Ohikoa denez, Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten jokabide kodeetan eza-rritakoa aztertzeaz eta interpretatzeaz gain, araudi eta dokumentazioa ere aztertu behar izan da, ikuspuntu juridikotik ikuspegi orokorra lortu eta ebazpenik egokiena hartu ahal izateko: 2022an, honako hauek aztertu behar izan dira:

- 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituena.
- 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi karguan aritzea arautzen duena.

Ondorengo taulan gaiak, aztertutako aginduak eta hartutako ebazpenak laburbiltzen dira.

01/2022 (EP)	Gizarte Politiketako Departamentuako langile batzuen ustetzeko erantzunik ezaren eta jarduerarik ezaren salaketa bati buruzko ebazpena
EPJK	• Profesionaltasuna (2.5 art.)
Aztertutako beste arauak	• -
Ebazpena	Ez du urratzen
02/2022 (KK)	Balizko zerbitzu prestazio bati eta erakundearen zuzentasun sistema urratzeko arriskuari buruzko ebazpena
KKK	• Interes-gatazkarik eza (3. art.)
EPJK	• Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [2.2.4 art.]
Aztertutako beste arauak	• 1/2014 Legea ⁵ , 18.19 eta 4): ondorengo debekua • 3/2015 Legea ⁶ , 15.5: ondorengo mugak
Ebazpena	Abstenitzeko obligazioa
03/2022 (ESZ)	Animalia basati bati arreta gaizki eman ditola adieraziten duen salaketa bati buruzko ebazpena
ESZ	• -
Aztertutako beste arauak	• -
Ebazpena	Ez du urratzen
04/2022 (KP)	Ebazpena, Gabonetako loteriako partzipazio bati eman beharreko helmugari buruzko kontsulta bati buruzkoa
KPK	• Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [2.2.4 art.]
Aztertutako beste arauak	• -
Ebazpena	Gomendioa

5 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen.

6 3/2015 Legea, martxoaren 30koa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi karguan aritzea arautzen duena.

b) Aztertutako gaiak⁷

Gaia: 01/2022

(...) JAUNAK AURKEZTUTAKO SALAKETARI BURUZKO EBAZPENA, USTEZ GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUKO LANGILE BATZUEN ERANTZUN FALTA ETA JARDUERARIK EZA EGOTZITA, EGINDAKO HAINBAT ESKAERAREN AURREAN

I.- KONTSULTA

1.- 2022ko urtarrilaren 6an, mezu hau iritsi zitzaion Erakundearen Etika Batzordeari: “Nik, (...), agiri bidez frogatuko dut Aldundia, Gizarteratze Zerbitzua, Txara 2ko bigarren solairua, legearen gainera daudela... 1) Arduradunak honako hauek dira: (...). 2) Zuen aurrean administrazio espediente baten kudeaketa txarra agerian uzten duten dokumentuak aurkeztuko ditut; kudeaketa hori zerbait pertsonal bihurtu da. 3) Egoera oso larria da eta kontroletik kanpo dago... 4) Gizarteratze Departamentuko (Txara 2) funtzionario publikoen botere abusua agerian uzten duen dokumentazio guztia Arartekoarengana eta Gizarte Eskubideen Ministeriora bidaliko dut zuzenean. Goian aipatutako pertsonen jarduna legetik kanpo dago erabat, eta kalte larria egiten ari zait”.

2.- Ondoren, urtarrilaren 10ean eta 28an, Erakundearen Etika Batzordeari zuzendutako erregistro bana jaso zen, eta horrekin batera hainbat agiri aurkeztu ziren: dokumentu bat, zenbait gertaera zehazten dituen eta Gizarte Politikako Departamentuko langileen usteko jarduerarik eza salatzen duena, interesdunak egindako salaketan eta laguntza eskaeraren aurrean; Gizarte Politikako Departamentuari zuzendutako erregistro batzuen kopia, non bilerak eskatzen diren, faktura batzuk ordaintzea exijitzen den edo departamentu horretako langileei zuzendutako kekek aurkeztu diren. Era berean, Ertzaintzan aurkeztutako bi salaketaren kopia aurkeztu da, baina ez aipatutako departamentuarekin zerikusia duten gertakariengatik baizik eta ustez Aterpe-Caritasen beste erabiltzaile batek egindako mehatxu eta erasoengatik, izan ere, normalean interesdunak bertan igarotzen du gaua.

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez finkatu nahi baitira etika publikoa eta eredugarritasuna, ezaugarri gisa.

Sistema horren esparruan, hainbat kode onetsi ziren, hurrenez hurren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodea (JJEK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko Erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua (JKEZE); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko Erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EKOK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua (JKEZE).

⁷ Gai guztiak hemen ikus daitezke: <https://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad/comision-de-etica>

2.- Bai EZSk bai dagozkion jokabide kodeek ezartzen dutenez, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango da berme handieneko organoa, eta bera arduratuko da haiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, beraz, EZS garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kekek eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Interesdunak kontatutako gertakarietan salatzen da Gizarte Politikako Departamentuko zerbitzuek ez dietela jaramonik egin berak egindako eskaerei.

3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikuluan, gaiak izapidetzeari eta ebazteari buruzkoan, ezarritako prozedurari jarraituz, aurkeztutako keken berri eman zitzaion eragindako departamentuari, dagozkion gogoetak adierazi eta argudiatu ahal izateko eskubidea bermatze aldera. Ildo horretan, 2022ko otsailaren 15ean, Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuko (aurrerantzean, Gizarteratze Zerbitzua) idazki bat jaso zen. Txosten horretan adierazten da zerbitzuak 2019. urtetik duela (...) jaunaren kasuaren berri, orduan elkartu baitziren lehenengo aldiz haren egoera ezagutzeko.

Gizarteratze Zerbitzuaren idazkian adierazten denez, orduz geroztik eta orain arte, aurreikusitako prozedura aplikatu da: gizarte bazterketaren maila baloratu zen, eta orduz geroztik laguntza espezializatua eskaini zaio. (...) jaunaren egoera, baldintzak eta beharrrak aztertu ondoren, erabaki zen harentzat ez zela baliabide egokia egoitza edo harrera etxebizitza bat, batez ere harremanen arloan dituen arazoengatik. Nolanahi ere, harreman arazo hori intentsitate baxuko esku-hartze batekin lantzeko aukera eskaini zitzaion Aterpen (gizarte premiei erantzuteko gaueko harrera zentroa). Harrezkero, aurrez aurreko bilerak eta telefono bidezko harremanak egin dira, gerora sortutako eskaerei erantzuteko. (...) jaunaren ustez eskainitako zerbitzuak nahikoak ez zirela jakinda, beste zerbitzu eta erakunde batzuek ere parte hartu dute, hala nola Hernaniko gizarte zerbitzuek, Lanbidek edo Osakidetzak. Jakin badakite interesduna hotel batera joan zela izandako istilu baten ondorioz, eta horren kostua Foru Aldundiak ordaintzeko eskatzen duela, eta Gizarteratze Zerbitzuak idatziz zein ahoz jakinarazi dio segurtasuna bermatuta dagoela eta Aterpera itzul daitekeela. Hala ere, 2022ko urtarrilaren 25ean, interesdunak berariaz eskatu zuen baja emateko bere esku jarri diren zerbitzu eta baliabideetan, eta indarrrik gabe uzteko egin dituen eskaerak.

Gizarteratze Zerbitzuak ondorioztatu du ezin zitzaiela eskaera guztiei erantzun, ez zirelako egokitzen jo gizarteratze prozesurako.

2.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta, zehazkiago, Gizarteratze Zerbitzuak egiten duen lana benetan konplexua dela uste dugu; izan ere, laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta kasuistika desberdinak direnez, eskaintzen zaizkien aukerek edo irtenbideek ere konplexutasun horri erantzun behar diote. Logikoa da pentsatzea ez dagoela sortzen diren egoera pertsonalak asetzen dituen irtenbide bakar bat, eta benetan garrantzitsuenak dela pertsona orok aukera izatea laguntzarik egokiena jasotzeko, bere premia eta inguruabarrekin bat datorrena.

Gaian interesa duten bi aldeetatik jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, uste dugu Gizarteratze Zerbitzuak hainbat baliabide jarri dituela interesdunaren eskura, denboran zehar berarekin egin diren bileretan hauteman diren beharrei erantzuteko. Beraz, gure ustez, erakundeen zuzentasunaren ikuspegitik, hau da, aztergai dugun ikuspegitik, erres-

petatu egin dira Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balioak eta printzipioak, eta jardun profesionalari buruzko arauei jarraitu zaie, bertan eskatzen den ardura profesionalarekin jardunez (Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 3.5 printzipioa), eginkizunak ahalik eta arreta handienarekin betez eta pertsona bakoitzari zerbitzu onena eman ahal izateko beharrezkoak diren ahaleginak eginez.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2022ko apirilaren 11n, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Lehenengo.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikuluari jarraiki aurkeztutako keza, ez baitira urratu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balioak, printzipioak eta jokabide arauak.

Bigarren.- Indarkeria Matxistaren Biktimak diren Emakumeak Gizarteratzeko eta Laguntzeko Zerbitzuari gomendatzen diogu eguneratuta eta behar bezala dokumentatuta eduki dezala espediente hau eta gizarteratze prozesuei buruzko beste edozein espediente edo prozedura, une oro bermatu ahal izateko ahalik eta dedikazio eta ahalegin handiena egiten dela pertsona bakoitzarentzat irtenbiderik onena aurkitzeko.

Gaia: 02/2022

EBAZPENA, BALIZKO ZERBITZU PRESTAZIO BATI ETA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA URRATZECO ARRISKUAREN GAINEKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1. 2022ko martxoaren 18an, kontsulta bat jaso zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Sistemaren arabera interesdunak izan zezakeen balizko gatazka bati buruzkoa. Idazkian adierazten da interesduna (...) langilea izan zela 2020ko abenduaren 27ra arte, (...), hain zuzen ere, eta egun horretan borondatez utzi zuela lanpostua. Balizko kasu bat aurkeztu du: jakin nahi du ea Zuzentasun Sistemaren balizko gatazka edo urraketa gisa hartuko litzatekeen baldin eta pertsona juridiko batek, interesduna bertan kargudun garrantzitsua izanda, edo interesdunaren gertuko pertsona juridiko batek Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat lan egin nahiko balu edo horretarako aukera izango balu, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo "bitarteko propietzat" jotzen diren sozietateen lehiaketetara aurkeztuko balitz, kontuan izanda bera (...) lan kontratupeko langilea izandakoa dela. Era berean, jakin nahi du balizko gatazka horrek 2 urteko iraupena izango lukeen (...)rekin zuen lan harremana amaitu zenez geroztik, edo ad eternum izango litzatekeen.

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema

(EzS) onetsi zen, eta horrekin etika publikoa eta eredugarritasuna sendotu nahi dira, erakundearen nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai EZSk bai dagozkion jokabide kodeek ezartzen dutenez, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango da berme handieneko organoa, eta bera arduratuko da haiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, beraz, EZSa garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Auzi honetan bi arazo ebatzi behar dira. Alde batetik, ebatzi behar da ea interes gatazkarik legokeen baldin eta interesdunak berak edo haren hurbileko pertsona juridiko batek Foru Aldundiarentzat lan egingo balu; eta, hala izanez gero, gatazka horrek 2 urteko epea izango lukeen edo mugagabea izango litzatekeen.

Gaiaren funtsari heldu baino lehen, planteamenduaren egokitasuna aipatu behar da; izan ere, gaur egun interesduna foru sektore publikoko langilea ez den arren, bere garaian izan zen, eta kontsulta balizko kontratu harreman bati buruzkoa da; beraz, beharrezkotzat jotzen dugu enplegu publikoari zein kontratazio publikoari buruz ezarritako arauak aztertzea.

2.- Kontratazio publikoa oso jarduera zaurgarria da, eta herritarrengan mesfidantza handiena sortzen duena; horregatik, ezinbestekoa da ondasun publikoen kudeaketa onarekiko konfiantza indartzen duten tresnak edukitzea. Erakundearen Zuzentasun Sistemak berak aitortzen du garrantzia hori, eta, horregatik, jokabide arauak ezartzeaz gain, gai horri buruzko kode propioa ezarri du, arriskuak prebenitu eta hauteman ahal izateko eta konpromiso etikoa kontratazio prozesuaren fase bakoitzean esku hartzen duten alderdi guztietara hedatu ahal izateko.

Interes gatazken problematika eta/edo haien zantzua EZSa osatzen duten kodeetan jaso da, eta zenbait jokabide arau ezarri dira zintzotasunaren eta interesik ezaren balioen inguruan (Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 3. art.):

(...)

*f) **Interes gatazka zantzua ematen da** foru langile publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesean edo berarekin lotutako hirugarrenean, **pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten** enpresa edo **erakunde***

interesetan, eragina ez dutela uste duenean, baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek **zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean** herritarrek erakundeari buruz duten **objektibotasun irudia**.

(...)

Gogora dezagun, gainera, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodeak bi alderdi dituela, batetik, enplegatu publikoei aplikatzekoa, eta, bestetik, lizitazio publikoetan parte hartzen duten erakundeei aplikatzekoa; eta interes gatazka elementu garrantzitsua dela bi alderdietan. Horregatik, hain zuzen, ezartzen da erakundeentzat ere gatazkarik ez dagoela deklaratzeko obligazioa (Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea, 3. atala, “Zuzentasun instituzionaleko esparrua alderdi exogenoari dagokionez”):

3. Interes gatazkarik eza

Eskaera edo eskaintza aurkezteko unean, enpresa edo entitate lizitatzailleak deklaratu beharko du ez duela inolako interes gatazkarik eta ez duela antzeko erlaziorik bestelako lizitatzailleekin edo proiektuan interesaturiko beste alderdi batzuekin. Kontratua gauzatzeko aldian egoera hori gertatuz gero, titularrak botere esleitzailleari jakinarazi beharko dio.

Aurreko ebazpenetan askotan hausnartu den bezala, interes gatazka bat egotea bezain garrantzitsua da gatazka zantzua ematea, eta horregatik, askotan EZSn jasotako oharren irakurketa zabala egin behar da, ez baita nahikoa ezarritakoa hitzez hitz irakurtzea, are gehiago, haren espirituarekin bat datorren interpretazioa egin behar da. Ildo horretan, “(...) zuzentasun instituzionala ezin da Foru Administrazioaren eta haren mendeko sektore publiko instituzionalaren barnean itxita geratu, gizartera ere igaro behar baitu, gizarterko elkarte ehuna, erakunde eta enpresak, kontratazio publikoa eta Gipuzkoako herritar guztiak ere bilduta. Horrela, Instituzioak erantzukizun kolektiboaren zentzua bultzatzen du, jendearen mentalitatea blaituz horren bitartez, herritarren kulturaren aldaketa eraginez eta arauak barnera ditzagun lagunduz; eredugarritasuna azken batean, gizartera igaro ahal izateko funtsezko elementutzat (...)” (5/2019 Ebazpena).

Esku artean dugun kasu honetan, interesduna ez denez zerbitzu publikoko langile bat, zentzu horretan ez litzateke interes gatazkarik egongo. Hala ere, kontratatu nahi den sektore publikoko erakundeko langile ohia izateak zalantzak sor ditzake kontratu harreman horren objektibotasunari buruz, bai erakundearen egoera, beharrak edo igurikimenak ezagutzen dituelako, bai erantzukizuna duten pertsonengana iristeko erraztasuna duelako, bere garaian izandako lan harremana eta betetako kargua direla-eta.

3.- Bestalde, 2020ko Aplikatzeko gidan proposatu zen egoera batean balizko interes gatazkarik dagoen ebazteko, beste baldintza bat ezartzea, hau da, kontuan hartu beharreko aldia finkatzea, lanpostuan hasi aurreko 2 urteak hain zuzen, bai kargu publikodunentzat, bai enplegatu publikoentzat, indarrean dagoen legeriak ezarritako betekizunarekin parekatzeko (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 23.2.3 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkek arautzen dituena).

2020ko Aplikatzeko gida:

“03/2020 gaia interes gatazka balizko bati buruzkoa zen, hartu zitezkeela-eta langileak iraganean lan harremana izan zuen erakundeentzat onuragarriak izan zitezkeen erabakiak. Horri dagokionez, EZSk ez du inolako aipamenik egiten kontuan hartu beharreko aldiari buruz, hartara interes gatazka bat egon litekeela ondorioztatu ahal izateko. Alde horretatik, garrantzitsua izan daitekeen hutsune baten aurrean gaude, ez baita gauza bera lan harremana duela gutxi amaitu izana edo duela zenbait urte gertatu izana.

Horregatik, gure ustez, garrantzitsua da denbora tartea mugatzea, eta, horretarako, 03/2020 Ebazpenean, legeriak ildo horretan adierazitakoari erreparatzen genion: zehazki, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duena; eta 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen (goi karguei aplikatzekoa, baita Gipuzkoako Foru Aldundikoei ere). Bi kasuetan, azken 2 urteetako aldia adierazten da, eta azkenak zehazten du Administrazioarekin egungo zerbitzu harremana hasi aurreko 2 urteez ari dela”.

Kasu honetan ez dira funtzio publikoak betetzean kontuan hartu beharreko gogoetak, geroagoko aldia baizik. Beraz, hutsune baten aurrean gaude berriz ere, Erakundearen Zuzentasun Sistemak ez baitu horri buruzko inolako aipamenik egiten. Hala ere, indarrean dagoen legeriak lan harremana amaitu ondoren kontuan hartu beharreko inguruabarrak zehaztu nahi izan ditu, eta kontratu harremanei dagokionez bereziki hau azpimarratzen du:

1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen

18. artikulua.– Kargu publikoa utzi ondoko debekuak.

1.– Kargu publikoak betetzen dituztenek, kargua uzten duten egunetik **hurrengo bi urteetan**, kargua dela-eta zuzeneko harremana izan duten enpresa, sozietate edo beste edozein entitate pribaturi ezingo diote inolako zerbitzurik eman, eta ezingo dute, haiekin, inolako lan-harremanik edo merkataritza-harremanik izan, kasuan kasuko araudiaren arabera egoki dakizkiekeen kalte-ordainei edo prestazioei kalte egin gabe.

(...)

4.– Halaber, artikulua honen lehen paragrafoan aipatutako kargu publikodunek, eta denbora-bitarte berean, ezin izango dute egin, ez beren kasa, ezta zuzenean edo zeharka haien % 10eko partaidetza baino handiagoa duten sozietate edo enpresen bitartez ere, **laguntza teknikoko kontraturik, zerbitzukurik edo antzekorik Administrazioarekin eta sektore publikoko organismo, entitate edo enprekin, baldin eta horietan kargu publikodun gisa zerbitzurik eman badute**, zuzenean edo enpresa kontratatzaile edo azpikontratatzaileen bidez.

(...)

3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi karguan aritzea arautzen duena:

15. artikulua. Kargua utzi ondoren jarduera pribatuetan aritzeko mugak.

(...)

5. 1. apartatuan aipatutako bi urteko epean, goi kargudunek ezin izango dute egin, ez beren kabuz, ez zuzenean edo zeharka ehuneko hamarretik goragoko partaidetza duten erakundeen bidez, laguntza teknikoko kontraturik, zerbitzu kontraturik edo antzekorik, alde aurretik zuzenean edo enpresa kontratisten edo azpikontratisten bidez zerbitzuak eman dituzten administrazio publikoarekin, baldin eta lotura zuzena badaute goi kargudunak betetzen zituen eginkizunekin. Zerbitzuak ematen dituzten erakundeek interes-gatazkako egoerak prebenitzeko eta hautemateko prozedurak ezarri beharko dituzte adierazitako epean.

(...)

Murrizketa horien bidez saihestu nahi da administrazioetik sektore pribatura eta sektore pribatutik administrazioa "ate birakariak" direlakoak egotea, hau da, zerbitzuak emateko kontratu baten bidez, kargutik kendutako kargu publikodun bat bere harremanez baliatzea garai batean lan egin zuen administrazio berarekin kontratuak lortzeko.

Kasu honetan, interesduna ez zen kargu publikoduna, lan kontratudun langilea baizik (aplikagarritasunari buruzko 01/2020 Ebazpena), baina zenbait ebazpenetan jaso den bezala (06/2019, 01/2020, besteak beste), EZSaren helburua kontuan hartuta, koherente izan behar dugu aurretik arauen aplikazio eremuaren, gatazka zantzuaren edo gardentasun kulturaren inguruan ezarri ditugun irizpideekin. Izan ere, etika legea betetzea baino zerbaite gehiago da; kontua ez da legez eragozpena edo bateraezintasuna egotea inguruabar jakin batzuetan, baizik eta, gizarteari begira, egoera horrek nolabaiteko eragina izan dezakeela edo abantailaren bat eman dezakeela pentsarazteko bidea eman dezakeenez, zuhurtasunez jokatu behar da eta behar diren prebentzio neurriak hartu, hasieran ezarri diren eta beti gainditzen saiatu behar diren jokabide estandarrei estaldura eta sinesgarritasuna emateko.

Denborari dagokionez, EZSn horri buruzko aipamenik egin ez denez, egokitze jotzen dugu lan harremana amaitu ondorengo 2 urteak kontuan hartzea; izan ere, kontua ez da funtzio publikorako sarbidea mugatzea, ezta baldintza zorrotzegiak ezartzea ere, kargu publikoan jardutea erakargarrtasun gutxikoa edo inolako erakargarrtasunik gabea bihurtzeraino; izan ere, azken finean, zerbitzu publikoa ere bada. Beraz, adierazitako aldia zuhurra iruditzen zaigu.

Azaldutako guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2022ko maiatzaren 4an, aho batez, erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Lehenengo. - Interesdunak edo haren hurbileko entitate batek (...)rekin kontratua egingo balu, gure ustez, urratu egingo lituzke EZSn ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide eta jarduera arauak, kontuan izanda Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren

eta Kudeaketa Onaren Kodea (3. artikulua, zintzotasuna eta interesik eza) eta kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua alderdi exogenoari dagokionez (3 apartatua).

Bigarren.- Urraketa hori aintzat hartzeko 2 urteko epea hartu behar da kontuan, lan harremana amaitzen denetik edo erakundeko kargu publikoa izateari uzten zaionetik zenbatzen hasita.

Gaia: 03/2022

**EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ANIMALIA BASATI BATI ARRETA
GAIZKI EMAN DIOLA ADIERAZTEN DUEN SALAKETA BATI BURUZKOA**

I.- KONTSULTA

1.- 2022ko ekainaren 26an, idazki bat jaso zen, egun berean goizeko 06:30ean gertatutakoa salatzeko.

Eskatzailea, (...) andrea, polizia autonomikoa da, eta, adierazi duenez, egun hartan, bere zereginak egiten ari zela, ibilgailu batek harrapatutako animalia basati bat aurkitu zuten. Antza denez, babestutako espezie bat zen, azeri gazte bat, hilzorian eta dardaraka zegoena. Adierazi du Foru Aldundira deitu zutela, baina laguntza ukatu zietela. Albaitari espezializatuekin, Arrano Etxea zentroarekin (sendatzeko zentroa, dagoeneko itxita dagoena) eta 112 telefonoarekin saiatu ondoren, lehen mailako laguntzarik jaso ez zuten, azeria ertzain etxera eramatea erabaki zuten, eta han hil zen azkenean.

Eskatzaileak auziaren kudeaketa txarra salatu du, batez ere espezie babestua zela kontuan hartuta.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea; Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua.

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru

Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-zeari buruz jasotako keaxak eta salaketak izapidetzea eta ebatzea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Interesdunak azaldutako gertakarietan, Foru Aldundiak kudeaketa txarra egin duela salatzen da, ulertzen baita Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuari (aurrerantzean, Zerbitzua) dagokiola, hark du-eta aipatutako gaiaren gaineko eskumena.

Maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, Zerbitzuari jakinarazi zitzaion kexa, jakinaren gainean egon zedin eta egoki irizitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko esku-bidea bermatzeko. Ildo horretan, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak idazki bat igorri zion EEB honi, gertakarien egunean jarraitutako prozedura deskribatuz.

Adierazten denez, 2022ko ekainaren 26an, 06:51n, Errenteriako ertzain etxearen dei bat jaso zuten Mendiko eta Natura Inguruneko irratian; deiaren bidez jakinarazi zitzaion hil-zorian zegoen azeria bat aurkitu zutela. Irratitik SOS Deiak-era deitzeko gomendatu zieten (hori da ohiko prozedura, aurrerago adierazten den bezala). 07:11n, SOS Deiak-ek Mendiko eta Natura Inguruneko irratira deitu zuen, eta adierazi zuen, azeria bizirik zegoenez, errepideak mantentzeko zerbitzuak ez zuela jasoko, eta, beraz, basozain bat bertara joateko eskatu zuen. 07:15ean eta 07:16an basozainari deitu zioten SOS Deiak-etik irratia bidez; azeria ertzain etxera eramango zutela esan zioten, eta, beraz, bertara joateko esan zioten basozainari. 07:44an iritsi zen basozaina, eta hilda zegoen animalia hartu zuen.

Adierazi denez, kasu honetan horrelako gertakarien aurrean ezarritako protokoloari jarraitu zitzaion, eta 07:11n SOS Deiak-en abisua jaso zenetik basozaina ertzain etxera iritsi arte, 33 minutu baino ez ziren igaro, kasu honetan ohikoa den denbora; Mendi eta Ingurune Naturaleko irratitik berehala jakinarazi zitzaion basozainari, eta zuzenean joan zen Errenteriako ertzain etxera. Zoritzarrez, azeria hilzorian zegoen, segur aski oso egoera larrian, eta hil egin zen basozaina iritsi aurretik. Azalpen gisa, adierazi du azeria ez dela espezie mehatxatua eta babestua, eta Gipuzkoan ehizatu daitekeen espezie bat dela.

Bestalde, hau bezalako kasuetarako ezarritako prozedura zehazten da. Gaur egun, laguntza behar duten animalia basatiak BASABIZI faunaren berreskurapen zentrora bideratzen dituzte. Zentro horrek atea ireki berri ditu, eta Arrano Etxean egiten zen lanarekin jarraitzen du. Partikularrek honako bide hauek dituzte zauritutako faunaren berri emateko:

- SOS Deiak: 112

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Ingurune Naturaleko irratia: 943 11 20 75 eta 943 00 04 20 (24 h)

- Basabizi zentroko telefonoa: 636 05 79 31 (lanegunetan: 09-13:00 eta 16-18; jaiegunetan eta asteburuetan: 09-13:00)

Ertzaintzaren kasuan, abisuak beti SOS Deiak-en bidez egiten direla zehazten da; beraz, kasu honetan, ezarritako prozedurari jarraitu zitzaion.

2.- Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuaren idazki baten bidez, azalpen zehatzak eman ziren, eta, zoritzarrez, azken emaitza animalia heriotza izan bazen ere, ezerk ez du

pentsarazten Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen jarduna egokia izan ez zenik; aitzitik, deskribatutakoa bezalako egoerak arretaz kudeatzeko ezarritako prozedurari jarraitu ziztaion, eta, beraz, behar bezala jokatu zen.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu zuen, aho batez, 2022ko abuztuaren 29an:

EBAZPENA

Bakarra.- Maiatzaren 3ko 10/2020 Foru Dekretuaren 9.6 artikulua araberak aurkeztutako kexa artxibatzea, ez delako ikusten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan aurreikusitako ez betetzerik.

Gaia: 04/2022

EBAZPENA, GABONETAKO OPARI GISA JASOTAKO GABONETAKO LOTERIAKO PARTAIDETZA BATI EMAN BEHARREKO DESTINOARI BURUZ KARGU PUBLIKO BATEK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2022ko abenduaren 7an, kargu publiko baten kontsulta bat jaso zen. Bertan adierazi zen (...)k Gabonetako loteriako 10€-ko parte-hartzea eman ziola.

2.- EEBk opari horri eman beharreko destinoari buruz duen iritzia jakin nahi du.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); eta 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-teari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Lehenago ere landu izan ditu EEB honek kargu publikodunek edo foru-sektore publikoko langileek opariak onartzearekin zerikusia duten gaiak (6/2017, 8/2018, 01/2019 Ebazpenak), eta, ebazpen horietan adierazi bezala, une bakoitzean baloratu behar da ea oparia onartzeak erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen, bai opariaren ezaugarriengatik, bai egoeraren baldintzengatik.

Bai KPJKk 3.4.g) artikuluan, bai EPJKk 3.h) artikuluan, zintotasunaren eta interesik ezaren balioekin lotutako jokabide-arauei dagokienez, adierazten dute uko egingo zaiela opariei (eta antzekoei), eta, entregatuz gero, foru-administrazioaren esku jarriko dela, egoki den bidea emateko.

Beraz, gomendio orokorra eta gardenena da eskerrak ematea oparia egin nahi duen pertsonari edo erakundeari, baina ez onartzea inolako oparirik, zalantzarik ez sortzeko.

Hala ere, adierazten da, halaber, berme-organismoari kontsulta egin ahal izango zaiola, eta organo horrek ezarriko duela kasuan kasu opari, konpentsazio edo onura horiek onargarriak diren ala ez; izan ere, aipatu den bezala, beharrezkoa da opariaren testuingurua eta balioa kontuan hartzea, oparia EZSn ezarritakoaren aurka joan daitekeen erabakitzeke.

2.- Aztertzen ari garen gaien, logikoa dirudi kortesiazko oparia dela pentsatzea, batez ere kontuan hartuta opariaren ezaugarriak eta oparia noiz eman den, eta opariaren egungo balioa (10 €) ez dirudi nahikoa denik karguaren funtzioak betetzeari kalte egiteko edo har ditzakeen erabakietan eragiteko.

Kontua da opariaren egungo balioa alda daitekeela Gabonetako zozketan saritua suertatzen bada, eta 10 € horiek hainbat mila euro bihur daitezkeela. Horrek ekarriko luke kargu publikodunak neurritz kanpoko onura jasotzea, bere eginkizunen esparruan jasotako opari batetik abiatuta. Hori, ezein lege-arauren edo EZSn ezarritako arauen aurkakoa ez bada ere, herritarren ustez, irabazi pertsonal desegoki eta neurrigabetzat har liteke.

Beraz, kontuan hartuta oparia dagoeneko jaso dela eta itzultzea kargu publikodunaren esker txarreko keinutzat har daitekeela, zuhurtziak adierazten digu aukerarik onena oparia Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratzea dela, sarituz gero, zerbitzu publikoen mesederako edo hobekuntzarako erabili ahal izateko.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu zuen, aho batez, 2022ko abenduaren 20an:

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiari berari Gabonetako loteriaren partaidetza dohaintzan ematea gomendatzen dugu, horretarako ezarrita dituen mekanismoen bidez.

5. Aplikatzeko gida

a) Arau-aldaketen ondoriozko gomendioak

Memoria honetan aipatu den bezala, datozen hilabeteetan EZSa eskakizun berrietara egokitu beharko da, bai zuzentasun-planekin eta salatzaileen babesarekin lotutako estatuko eta Europako araudietatik eratorritakoetara, bai Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren ebaluazioaren emaitzetatik eratorritakoetara, foru-administrazioan zuzentasun-sistema ezartzeari eta garatzeari dagokionez. Beraz, gure gomendioa da 2023an zehar garatzea eskakizun horiek betetzeko behar diren tresnak. Ziur asko, elementu hauen inguruan hartuko dira:

- Interes-gatazken kalifikazioa aldatzea.
- Salatzaileak babesteko neurriak hartzea.
- Iruzurraren aurkako Plana osatzea. Plan horretan, balizko iruzurrak detektatzeko bandera gorrien mekanismo bat ezarriko da, bai eta arauak ez betetzeko arrisku-adierazleak ere.

b) Web- orrian ohiko galderen atala

Lantzen ari garen beste alderdietako bat Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunea berritzea da, sortu diren eta datozen hilabeteetan sortuko diren zabalkunde-material berriak sartu ahal izateko.

Ildo horretan, uste dugu interesgarria izango litzatekeela beste atal bat ere sartzeari, EZSa osatzen duten kodeen manuen interpretazioari edo argipenari buruzko ohiko galderak jasoko dituen. EEBk hartutako ebazpenak jendearen eskura jartzeko helburuetako bat, jakina, jardueraren berri ematea da, baina helburu pedagogikoa ere badu, hau da, aurrerariak eta ezagutza kolektiboa ezartzea. Egia da EEB honen irizpidea dela gai bakoitza banan-banan aztertzea kasu bakoitzaren kontu bereziak aztertu ahal izateko (2017ko aplikazio-gidaren gomendioa), baina egia da, era berean, egindako kontsultetan behin eta berriz errepikatzen diren gaiak daudela, hala nola opariak jasotzea edo jardueren bateragarritasuna, adibidez. Hori dela eta, esperientzia kontuan hartuta, uste dugu erabilgarria izan daitekeela azalpen errazen zerrenda bat egitea, kontsulta-prozesurik abian jarri gabe egoera errazak interpretatzen laguntzeko.

ERABAKIAK

Interes-gatazken sailkapenari, salatzaileen babesari eta iruzurraren aurkako planaren garapenari buruzko eskakizunak betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren web-orrian ohiko galderen atal bat sartzeari.


Erakundearen Etika Batzordearekin harremanetan jarri:

zuzentasuna@gipuzkoa.eus

Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentrala. Foru Jauregia

Gipuzkoa Plaza z.g. 20004, Donostia

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa